



2015eko urtarrilaren 24a

## IKASTOLEN KONTSEILUAREN BILDUMA

### AIPAGAIAK

1. Sar hitza
2. Ohar eta galderak
3. Bozkak
4. 4,5ko astearen azterketa kuantitatiboa
5. Bulegokideen hautaketa
6. Beste

### Hor ziren :

**Langileak** : Ihintza Ostolaza, Manu Soto, Yolaine Poussier, Maite Erdozaintzi, Xabier Hernandez, Xantal Maya, Arkaitz Irazabal.

### Ikastolak :

**Amikuze** : Mattin Daguerre, Bixente Doyhenard, Dominique Jaureguy

**Angelu** : Maider Delprat, Iza Manriot, Peio Olhagaray

**Aloze** : Valérie Labaste, Johane Cazanave

**Arberoa** : Laure Blandin, Maddi Bordagarai, Emile Rivest

**Azkaine** : Iker Edme, Panpi Tellechea, Serge Etchenic

**Baigorri** : Jean Paul Ocafrain, Maider Bergouignan

**Beskoitze** : Xabi Irigoyen, Delphine Corret

**Baiona Oihana** : Loli Jacob Fourcade, Maider Iturrioz, Mirentxu Etcheverry, Barabara Thibaut

**Baiona Polo** : Pauline Lopes, Fiona Lestarpé, Jenofa Duny Pétré

**Bidarte** : Alexander Ekstrand, Mirentxu Urkia Mioque

**D. Garazi** : Pauline Champon Urrizaga, Xabi Larre, Itxaro Bethart, Charlotte Ampo

**D. Lohitzune** : Peio Dufau, Manex Fuch

**Hazparne** : Olatz Defois, Joana Larrandaburu, Kattin Etcharren Oyharcabal, Sandrine Martinon

**Hendaia** : Mikel Iglesia, Iñigo Urkia, Paxkal Oxandabaratx, Maialen Etchenagusia, Pili Etxeberria, Saioa Elozegi

**Hiriburu** : Fred Larronde

**Itsasu** : Ttipia Lagan, Argi Hirigaray, Marion Saumonneau

**Kanbo** : Mirentxu Parachu, Brigitte Uhalde, Sylvain Rouyer, Marie Claire Dupuy

**Lekorne** : Cécile Etchebarne, Maiana Heguy

**Miarritze** : Karine Etchart, Beñat Bibes, Isabelle Petit, Hermine Dikoumé

**Ortzaize** : Lorea Mentaberri, Amaia Amestoy, Maider Luro  
**Oztibarre** : Antton Etxeberri, Daniel Olcomendy, Aymar Bourgy  
**Sara** : Fabienne Parachu, Joanes Garcia Basurco, Ximun Garcia, Clair Grillard  
**Senpere** : Paxkal Duhau, Jone Saubaber, Mixel Bidegain  
**Sohüta** : Daniel Lagune, Jean Marc Hobiague, Vanessa Samalbide Lechardoy  
**Urruña** : Garbiñe Inchausti, Maitena Tellechea, Paula Housset Serraller, Nausica Sanchez  
**Uztaritze** : Sandra Paparemborde, Pantxika Ibarboure, Isa Manzano, Idoia Davant  
**Ziburu** : Pantxo Olcomendy, Jon Bergara  
**Xalbador kolegioa** : Pantxika Larre, Philippe De Ezcurra, Lurdes Goikoetxea, Kattin Etcharren, Jeanine Iribarren  
**Larzabal kolegioa** : Lierni Elortza, Maider Carrera Indo, Maitena Etxeberri, Ana Erasun, Iurgi Arrizabalaga, Ihintza Solorzano  
**M.E.E. kolegioa** : Jojo Malharin, René Ayphassorho  
**Ettxepare lizeoa** : Iñigo Ayestaran, Maialen Etchemendy, Maiana Lascaray, Marie Hélène Deliant, Anne Marie Jolimon, Patricia Berrouet

## 1. Sar hitza

Paxkal Indo lehendakariak hartu du hitza: *“Lehen lehenik barkamenak galdegin behar dizkizuegu. Gertakizunek bultzaturik, Ikastolen Kontseilu hau nahi baino denbora guttiagorekin deitu baitugu. Hala ere, ikastoletan epeetan biltzarrak egin dituzue eta gaur nombre handian jin zirezte. Beraz eskerrak zueri, beste behin egin duzuen indarrarengatik.*

*Problema da, lurraren jabeak erantzun definitibo bat nahi duela heldu den asteko beraz Ziburun lur bat erosi ala ez erabakitzeke bildu gara hemen. Baietzkoa bada, heldu den asteen notarioarekin bilduko gira, ezezkoa bada, ez.*

*Hala ere ohar tipi batzuk egin nahi genituzke hasi aitzin:*

*Batetik galdeginen dizuet emaitza edozoin izanik ere, informazioa heldu den asteazken arte ez dezazuen zabaldu. Asteazkenean Herri Urratseko prentsaurrekoa dugu. Eta lurra erostea erabakitzen bada, aitzinikusi ditugun ekitaldi guziak (bertso, rugby edo beste) Herri Urratsen kanpainan kokatu nahi ditugu, Herri Urrats ahal bezain arrakastatsua izan dadin.*

*Bestalde, aldi huntan espreski galdegina genuen ikastoletan eginen zenituzten biltzar nagusietara Seaskako Batzorde Eragileko zuen erreferenteak gonbidatzea. Batetik, txostenean idatzi ezin diren hainbat elementu badirelako, eta bestetik, eztabaidarako gako guziak zuen esku ezartzeko. Ikastola gehienetan erreferentea deitu duzue eta eskertzen zaituztegu. Ikastola batzuetan aldiz, erreferenteak ez dira gomitatu”.*

Lehendakariak auzapezak hitzemanak eta kanpainari buruzko xehetasun zenbait eman ditu.

Bestalde, bilkura aitzin izen faltsu batekin, ustez ikastola bateko buraso litaikeen pertsona baten mailak ikastola batzuetan zabaldu direla ohartarazi du. Anonimo eta izen faltsuen gibelean gordetzen diren mezuek helburu bakarra dutela azpimarratu du, bazterrak ahal bezain bat nahastea. Galdera eta ohar guzietan beti erantzuteko prest agertu da Seaskako bulegoa, anonimo eta izen faltsuekin gorde behar izan gabe.

*“Azkenik, eta bozkaren emaitza edozoin izanik ere, Seaskako Batzorde Eragiletik beste behin ere gure elkartasun guzia eta sustengua adierazi nahi diegu Ziburuko Kaskarotenea ikastolako burasoei. Zuen kemenak Seaskaren historian orrialde berezi bat ukanen du. Zuen borroka gurea da eta denen artean irabaziko dugu” azpimarratu du lehendakariak.*

Informazio horiek emanik, galdera eta oharrendako tartea ireki da. Ondotik bozkak bildu dira.

## **2- Oharrak eta galderak**

Hainbat ohar izan dira, bereziki diru zama handiak kezkatuak. Horra biltzarrean izan diren galdera erantzunen bilduma bat :

### **- Lehen aldia da lur bat erosten dela :**

Ez da lehen aldia. Sohutan, Garazin, Hazparnen edo Ortzaizen, besteak beste, gisa hortan egin zen, garaian ere ez baitzen beste aterabiderik atzeman

### **- 300 000 € 13 ikaslerendako, sobera kario da :**

Lurraren prezioa Kostaldeko prezioetan kokatzen da. Hala ere ez da gaur egun diren ikasleen arabera pentsatu behar, baizik eta laster hor izanen dugun ikasle kopuruaren arabera ; hots, 40-50 ikasle. Barnekaldearekin konparatuko bagenu, azken urteotan egin ditugun inbertsioen ratio beretan kokatzen gira (Sohüta, Ortzaize,...).

### **- Erosketa horrek azken urteetako defizita handituko du eta Seaska ahulduko ?**

Azken urteotako konduak ez dira defizitarioak izan ez Seaskan ez eta Ikastolen Egoitzan ere. Proposatzen den kanpainarekin, helburua da 0€ko kostua ukan dezan 2014/2015 konduetan. Horretarako denen partehartzea beharko da. Ziburun ikastola garatzeak alderantziz, indartuko gaitu.

### **- Ziburuko herriko etxeak lokal bat proposatu zuten. Zergatik ez da onartu?**

30 metro karratuko gela bat zen, leihorik gabea, eta autopistari kolatua. Geroztik gainera autobidea zabaltzeko lanak hasi dituzte artean ziren arbol guziak moztuz. Eremua autopistan berean da, ez du inolako babes foniko edo bisualik. Ezinezkoa da eskola bat hor egitea.

### **- Beharrezkoa ote zen ikastola bat Ziburun, Donibane eta Urruñan ikastolak izanik ?**

Urruñan 120 ikasle hurbil izanen ditugu heldu den ikasturtean. Luza gabe, toki arazoak izanen dira. Donibanen 130 ikasle hurbil ere izanen dira heldu den sartzean. Gainera ikastola zaharkitua da eta ikastola berrirako aldaketa berriz ere gibelatzekotan da 2016rako aipatzen baita.

Ziburuko ikastola idekitzeko erabakia orain dela hiru urte hartu zen eta 2012an hasi zen. Gaur egun bertan diren burasoen erdiek ez lukete heien haurra ikastolan ezarriko Ziburuko ikastola izan ez balitz. Ziburuk 6 000 biztanle ditu, eta geroan 100 ikasletik hurbil izan daitekeen ikastola da, inguruko herrietako ikastolek bezala (Urruña, Donibane, Azkaine, Senpere edo Sara).

- **Ikastola hori garatuko dela pentsatzen bada, ez ote da eremua tipiegi?**

Eremu horretan 50 ikasle arte aterbetzeko ahalko dira. Baina hori ez da berehala egingen, 5 bat urte beharko dira. 5 urte ditugu beraz 50 ikaslara hetlzeko eta geroa prestatzeko. 2020ko herriko hauteskundeetan hautagaiek ikastolarendako gune publikoaren beharra mahaigainean ukanen dute berriz eta ez dugu uste bordel bera bizitzeko prest direnik. Mementu horretan erabaki beharko dugu gune hori ama-ikastola bezala atxiki, eta lehen maila beste nunbait egin, ala lurra erositako prezioan saldu, beste gune handiago batean kokatzeko.

Sos hori ez da galdua, inbertsio bat bezala ikusi behar da geroari buruz.

Aldiz ikastola batzuetan urtean 12 000€, 15 000€, 24 000€ edo 38 000€ emaiten direlarik alokairuan urtero, nahiz eta lokal publikoak izan, sos hori galdua da.

- **Ziburun erosiz, ez ote da mezu lanjerosa emaiten, ondoko proiektuak publikoak izaita nahi badugu?**

Ziburuko gertakizunak hurbiletik segitu dituzte gainerateko hautetsiek. Auzapeza ezaguturik eta haren itsukeria ikusirik, aterabidea gure esku izanen zela argi zuten ikusi ditugun hautetsi andanek. Ziburutik ateratzen ahal den mezurik ezkorrena, Ziburuko ikastola istea zen. Kontrakoak ditugun hautetsiek ikusten badute aski dela aterabideak tratatzea ikastola bat ez idekitzeko edo isteko... Ez dugu uste nehork bizi nahiko duenik berriz, Ziburun bizi izan den egoera. Ez eta Guy Poulouk ere ez...

- **Ez ote dugu ikastola aski ? Ez ote dugu pausa bat egin behar, ditugun egiturak indartzeko, eta egoera hobea itxoin ikastola berriak ideki aitzin?**

Seaska eta ikastolak dira euskalgintzaren motorra Ipar Euskal Herrian. Motorra itzaltzen badugu, euskara bizirik irauteko dugun azken esperantza dugu itzaliko. Seaskako Batzorde eragileak biziki argi du ikastolak ahal bezain bat hedatu behar ditugula eta azken urteotan borroka ezberdinen bidez indar metaketa handia egin dugula garapen hortan segitzeko. Gure indarra, gure garapena da, eta azken urteetan gure egoera anitz hobetu baldin bada (ikastolek eraikuntza ederrak dituzte gaur egun), gizarte mailan hartu dugun pisuari esker izan da. Pisu hori handituz ditugu gure baldintzak hobetuko, ez jadanik lortu dugunarekin konformatuz.

Ikastolen Kontseiluko kide batek hitza hartu du, oroitaraziz ikastola gehienek sorrerak izan direla gatazkatsuak. Urruñako ikastolaren kasua aipatu du, okupazio, polizia, eta azkenean diru bilketa eginez eraiki zela ikastola. Gisa berean azpimarratu du ikastola guziek nahi dutela Ziburuko ikastola idekirik atxikitzea, eta ez dela elgarrenganako mesfidantzarik agertzeko arrazoinik, adierazpen zenbaitetan entzun daitekeen gisan. Ziburuko ikastolako kideek hartu dute azkenik, ohartarazteko heiek ere beste herrietan bezala ikastola bat nahi dutela heien haurrek erakaskuntzarik hoberena ukan dezaten eta euskaraz. Gisa berean egoitza publikoak lortzeko borrokan segitzeko prestutasuna agertu dute.

### 3- Bozkak

Ikastola	bozkak	Hor	BAI	EZ	XURI	EZ.P.H
LANGILEAK	170	7	32	23	15	
AMIKUZE	30	3	10	12	8	
ANGELU	30	3	23	3	4	
ALOZE	20	2	16		4	
ARBEROA	30	3	22		3	5
AZKAINA	30	3	28	2		
BAIGORRI	20	2	20			
BIDARTE	20	2	20			
BESKOITZE	20	2	20			
B. OIHANA	40	4		40		
B.POLO	30	3	24	4	2	
GARAZI	40	4	35		5	
D.LOHITZUNE	40	2	8	8	4	
HAZPARNE	40	4	15	12	10	3
HENDAIA	60	6	31	18	11	
HIRIBURU	20	1	8	1	1	
ITSASU	30	3	30			
KANBO	40	4	40			
LEKORNE	20	2		20		
MIARRITZE	40	4	14	13	13	
ORTZAIZE	30	3	16	5	9	
OZTIBARRE	30	3	5	20	5	
SARA	40	4	10	30		
SENPERE	30	3	27	0	3	
SOHUTA	40	3	17		13	
URRUÑA	40	4	14	11	15	
UZTARITZE	40	4		40		
ZIBURU	20	2	20			
XALBADOR	70	5	29	13	8	
LARZABAL	60	6	40	16	4	
MEE	40	2	10	10		
ETXEPARE	60	6	60			
	1270					

KIDEAK	127	Emaizak			
quoruma	64	BAI	EZ	XURI	EZ P.H
OROTARA	109	644	301	137	8

1082

**IKak Ziburuko Kaskarotenia Ikastolarendako lurra erosteko 330 000 €ko aurrekondua bozkatu du.**

Emaizak eskuraturik, Seaskako bulegoak adierazi du lehenago egin izan den bezala orain ere Ziburuko ikastolaren alde mobilizatu beharko dugula, kanpaina ahal bezain arrakastatsua izan dadin, ikastola hori bizi dadin eta Seaskak bere garapena segi dezan, oztopo guzaien gainetik.

#### **4- 4,5 astearen azterketa kuantitatiboa**

4,5ko astearen lehen azterketa kuantitatiboaren emaitzak eman dira. (ikus loturik power pointa).

#### **5- Bulegokideen hautaketa**

Aitzineko Ikastolen Kontseiluetan bezala, Seaskako Batzorde Eragilean sartzeko hautagaitzak galdegin dira. Gaur egun bi buraso eta lehen mailako erakasle baten ordezkaritza betegabea da. Baina maleruski, ez du nehork bere burua aurkeztu.

#### **6- Beste**

Abenduko Ikastolen Kontseiluko ildoari jarraiki, Donibane Lohizuneko ikastolak ikastola bat Seaskatik kanporatua izateko prozedura aldatu nahi luke, aldaketa estatutario bat proposaturik. Bulegoak proposamena jaso du eta aztertuko du, ondoko Ikastolen Kontseilua aitzin.